

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2017 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, ezartzen duena identifikatu beharra finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza, eta haiei buruzko informazioa eman beharra, elkarri laguntzearen esparruan

Nazioartean finantzen arloko informazioa trukatzeko tresna da zerga administrazioentzat, zergadunek beren zerga betebeharrak ondo betetzen dituzten egiaztatzeko. Izan ere, azken urteotan truke hori funtsezkotzat jotzen dute bai nazioartean zerga iruzurraren kontra borrokatzeko konpromisoa duten administrazioek, bai Europar Batasunak eta Ekonomia Lankidetzako eta Garapeneko Erakundeak (ELGE).

Abiaturat hartuta Estatu Batuetako gobernuak eta Alemania, Espainia, Frantzia, Italia eta Erresuma Batuko gobernuak nazioarteko zerga betekuntza hobetzeko eta AEBen FATCA legea (atzerriko kontuen zerga betekuntzaren legea) aplikatzeko 2013an hitzartutako akordioa, Batasuneko bost herrialdeok adierazi zuten nahi zutela informazioaren truke automatikoa ahalik herrialde eta jurisdikzio gehienetara zabaltzea eta iragarri zuten zerga informazioa trukatzeko alderdi anitzeko sistema automatikoa eta estandarizatua sortzeko proiektu pilotu bati ekingo ziotela. Ekimen horren ildotik ELGEk «G-20» deritzonaren agindua jaso zuen aurrean aipatutako gobernuen arteko akordioa eredutzat hartzeko finantza kontuetako zerga informazioa modu automatikoan trukatzeari buruzko nazioarteko arau bakarra prestatzeko.

Ondorioz, 2014ko hasieran ELGEk agintaritze eskudunen arteko akordioaren eredia eta informazio trukeko estandar komuna argitaratu zituen, eta urte bereko uztailean ELGEko Kontseiluak akordio ereduaren eta informazio trukeko estandar komunaren inguruko iruzkinak argitaratu zituen. Oinarri horiek finkatu ondoren, 2014ko urriaren 29an 51 herrialdek eta jurisdikzioek Agintaritze Eskudunek Finantza Kontuei buruzko Informazioa Automatikoki Trukatzeak Akordioa sinatu zuten Berlinean, Strasburgon 1988ko urtarrilaren 25ean sinatutako Zerga Gaietako Administrazioen arteko Laguntzarako Hitzarmenaren testu bateginak 6. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.

Europar Batasunaren eremuan, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauak, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzkoak eta 77/799/EEE Zuzentaraua indargabetzen duenak, ezartzen zuen Batasuneko estatuak nahitaez eman behar ziotela elkarri informazioa modu automatikoan, baina bakarrik errenta eta ondorearen ingurukoa, finantzetakoa ez bestelakoa, eta baldintza modura ezarrita informazioa baliagarri egon behar zela. Batasuneko estatuak finantza kontuetara zabaltzeko nahi izan dute beren arteko informazio truke automatikoaren esparrua, ELGEk prestatutako informazio trukeko estandar komunarekin bateratuta eta koordinatuta, eta horretarako oraintsu onartu da Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentaraua, 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena fiskalitatearen inguruko informazioa modu automatikoan nahitaez trukatu behar izateari dagokionez.

Aurrean aipatu diren nazioarteko akordioez eta zuzentarauaz gainera foru dekretu honek badauka oinarririk Arabako Lurralde Historikoaren esparruan ere: batetik, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Lurralde Historikoko zergenak, 1. artikuluko 2. idatz zatian eta 29 bis artikuluan ezartzen duena elkarren laguntzaren esparruko zerga betebeharez; bestetik, eta zehatzago, foru arau bereko hogeita bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duena: finantza entitateek finantza kontu jakin batzuen titularren egoitza non dagoen zehaztu behar dute eta

kontu horiei buruzko informazioa eman behar diote kasuan kasuko zerga administrazioari, eta kontuen titularrek zerga egoitza non duten azaldu behar diete finantza entitateei. Halaber, xedapen horrek honako hau ere ezartzen du: informazio hori eman aurretik finantza entitateek finantza konturen baten titular diren pertsona fisikoei adierazi beharko diete berei buruzko informazioa, foru dekretu honetan aipatzen dena, zerga administrazioari jakinaraziko zaiola eta 2011/16/EB Zuzentarauk diotenaren arabera behar den Batasuneko kideari helaraziko zaiola kontua informazioa eman beharri lotuta dagoen lehen urte naturalaren hurrengoan, urtarri-laren 31 baino lehen.

Foru dekretu honen bidez barruko ordenamenduan sartzen dira zerga administrazioari finantza kontuei buruzko informazioa emateko aplikatuko diren arauak eta finantza entitateek informazio hori lortzeko egin beharreko eginbideen prozedurak, helburua dela zerga administrazioak jasotzen duen informazioa modu automatikoan trukatu ahal izatea finantza konturen baten titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza dagoen herrialdeko edo jurisdikzioko administrazioarekin. Hori guztia Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauak, Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentarauak aldatzen duenak, eta Agintaritzak Eskudunek Finantza Kontuei buruzko Informazioa Automatikoki Trukatzeak Akordioak ezartzen duten esparruan egingo da.

Halaber, kontuan edukita 2014/107/EB Zuzentarauak aurrezkien interesen ondoriozko etekin fiskalitateari dagokionez ezartzen duen aplikazio eremua zabalagoa dela, oro har, Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/48/EE Zuzentarauak ezartzen duena baino eta, gainera, xedatzen duela lehentasuna daukala haren aldean, Kontseiluaren 2003/48/EE Zuzentarauak barruko ordenamenduan ezarritako arau manuak ezabatu behar dira, informazioa ematearen inguruko betebeharrak ez bikoizteko eta finantza kontuei buruzko informazio truke automatikoa lehen aipatutako nazioarteko arau bakarrera moldatzeko.

Hau da foru dekretuaren egitura: bost artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

1. artikulua foru dekretuaren xedea ezartzen du.

2. artikulua egoitza non dagoen zehaztu beharriaren eta informazioa eman beharriaren eremu subjektiboa ezartzen du; bi betebeharrak azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinean aipatzen diren finantza entitateei dagozkie (dekretu horrek bi betebeharrak ezartzen ditu elkarren laguntzaren esparruan: batetik, finantza kontu jakin batzuk dauzkaten edo kontrolatzen dituzten pertsonen zerga egoitza identifikatu beharra; bestetik, kontu horiei buruzko informazioa eman beharra).

Eranskin horretan zehazten da zer egin behar duten finantza entitateek irekita dauzkaten finantza kontuen inguruko egin beharrekoen arreta egokirako (halako konturen baten titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza non dagoen adierazi eta kontuei buruzko informazioa eman beharra dagoenez zehaztu). Egiteko horietan bereizi egin behar dituzte lehenetik dauden kontuak eta kontu berriak. Gainera, titularrak nolako den ere kontuan eduki behar da eta pertsona fisikoaren kontuak eta entitateen kontuak bereizi behar dira.

3. artikuluan finantza konturen baten titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza non dagoen zehaztu beharra arautzen da. Egoitza non dagoen zehaztu beharra informazioa trukatzeko sistemaren giltzarria da, zerga egoitza dagoen herrialdeak edo jurisdikzioak ezartzen baitu kontuaren gaineko informazioa eman behar den edo ez. Beraz, zerga egoitza non dagoen zehaztea ezinbestekoa da gero informazioa emateko eta, gainera, alde aurreko urrats hau finantza entitateen finantza kontu guztietan egin behar da; horrenbestez, aparteko betebeharrak modura arautu behar da.

4. artikulua informazioa eman beharra arautzen du. Honako pertsona hauei buruzko informazioa baino ez da eman beharko: finantza konturen baten titulartasuna edo kontrola duten pertsonak, baldin eta beren zerga egoitza elkarren laguntzaren esparruan informazioa trukatu

beharra duten herrialde edo jurisdikzioetako batean badago. Finantza entitateen segurtasun juridikoa sendotzeko, berariaz ezartzen da adierazpen informatiboa onartzen duen foru aginduan informazioa trukatu beharra duten herrialde eta jurisdikzioen zerrenda agertu behar dela.

Azkenik (artikuluetan), 5. artikuluan eman beharreko informazioa xehatzen da.

Finantza entitateek zerga administrazioari eman beharreko lehen zerga informazioa 2016koa izango da. 2017. urtean eman beharko dute.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da arautzea nola bete behar dituzten finantza entitateek finantza kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza non dagoen zehaztu beharra eta kontu horiei buruzko informazioa eman beharra, Kontseiluaren 2011/16/EE Zuzentarauak, Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EE Zuzentarauak aldatzen duenak fiskalitatearen inguruko informazioa modu automatikoan nahitaez trukatu behar izateari dagokionez, eta Agintaritza Eskudunek Finantza Kontuei buruzko Informazioa Automatikoki Trukatzeako Akordioak ezartzen dutenarekin bat etorritik, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Lurralde Historikoko zergenak, 29 bis artikuluan eta hogeita bigarren xedapen gehigarrian xedatzen duenari jarraikiz.

2. artikulua. Eremu subjektiboa

Honako hauek bete behar dituzte foru dekretu honetan aipatzen diren egoitza non dagoen zehaztu beharra eta informazioa eman beharra: azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskineko VIII. ataleko A letran aipatzen diren finantza entitateek (dekretu horrek bi betebeharrak ezartzen ditu elkarren laguntzaren esparruan: batetik, finantza kontu jakin batzuk dauzkaten edo kontrolatzen dituzten pertsonen zerga egoitza identifikatu beharra; bestetik, kontu horiei buruzko informazioa eman beharra).

3. artikulua. Zerga egoitza non dagoen zehaztu beharra

Finantza entitateek azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskinean ezartzen denarekin bat etorritik zehaztu behar dute non dagoen finantza konturen baten titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza.

4. artikulua. Informazioa eman beharra

Finantza entitateek zerga egoitza honako herrialde edo jurisdikzio hauetan duten pertsonen titulartasuneko edo kontrolpeko finantza kontuei buruzko adierazpen informatiboa aurkeztu beharko diote Arabako Foru Aldundiari, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketegi buruzko informazioa eman beharra arautzen duenak, 6. artikuluko 2. idatz zatian ezartzen duenarekin bat etorritik:

a) Europar Batasuneko beste estatu bat; Kontseiluaren 2011/16/EE Zuzentaruak, Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EE Zuzentaruak aldatzen duena fiskalitatearen inguruko informazioa modu automatikoan nahitaez trukatu behar izateari dagokionez, aplikatzen den lurraldea; Europar Batasunarekin foru dekretu honetako 5. artikuluan aipatzen den informazioa eman beharra ezartzen duen akordioa sinatuta daukan herrialdea edo jurisdikzioa.

b) Agintaritza Eskudunek Finantza Kontuei buruzko Informazioa Automatikoki Trukatzeako Akordioak ondorioak sortzen dituen herrialdea edo jurisdikzioa, informazioa trukatzeko elkarrekotasuna ezarrita daukana.

c) Espainiarekin foru dekretu honetako 5. artikuluan aipatzen den informazioa eman beharra ezartzen duen akordioa sinatuta daukan eta, azken horretan xedatutakoaren arabera, informazioa trukatzeko elkarrekikotasuna ezarrita daukan herrialdea edo jurisdikzioa.

Adierazpen informatiboa urtero egingo da; nola eta noiz aurkeztu behar den foru agindu baten bidez ezarriko du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak. Foru agindu horretan artikulua honetako a), b) eta c) letretan aipatzen diren herrialdeak eta jurisdikzioak zehaztuko dira, bai eta foru dekretu honetan xedatzen denari dagokionez parte hartzaileak jotzen direnak ere.

5. artikulua. Eman beharreko informazioa

1. Informazioa eman beharra aplikatzen zaien kontuen inguruko informazio hau xehatu behar da:

a) Kontuaren titularraren pertsonaren izen-abizenak edo entitate izen osoa, helbidea, egoitza dagoen herrialdea edo jurisdikzioa (edo herrialdeak eta jurisdikzioak), eta IFZ. Kontuaren titularraren pertsona fisikoa bada, non eta noiz jaio den zehaztu behar da.

Titularraren entitatea bada eta azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuaren eranskineko V., VI. eta VII. atalen arabera arreta egokirako prozedurak aplikatuz finkatzen bada haren gaineko kontrola duten pertsonen informazioa eman beharra aplikatu behar zaiela, entitateari eta informazio eman beharra daukan pertsona bakoitzari buruzko informazioa (aurrean azaldutako datuak) eman behar da.

b) Kontuaren zenbakia.

c) Informazioa eman behar duen finantza entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Urte naturalaren amaieran kontuan izan den saldoa edo balioa.

Balio efektiboko aseguru kontratuen eta urteko ordainketak egiteko kontratuen kasuan, balio efektiboa edo erreskate balioa hartuko da aintzat.

Urtean zehar kontua itxi bada, horren berri eman behar da.

e) Zaintzako kontuen kasuan:

1. Urte naturalean kontuko aktiboek sortu interesen zenbateko gordina, dibidenduen gutxitako zenbateko gordina eta beste errenta batzuen gutxitako zenbateko gordina, kontuan edo berari dagokionez idaztohartu edo ordaindutakoak.

2. Informazioa eman beharra daukan finantza entitatea kontuaren titularraren zaintzaile, artekari, agente izendatu edo ordezkari lanak egin dituen urte naturalean kontuko finantza aktiboak salduta edo amortizatuta sortutako gutxitako sarrera gordinak, kontuan idaztohartu edo ordaindutakoak.

f) Gordailu kontua bada, urte naturalean kontuan idaztohartu edo ordaindutako interesen gutxitako zenbateko gordina.

g) Kontua ez bada aurreko e) eta f) letretan azaltzen direnetakoa, informazioa eman beharra daukan finantza entitatea zergapekoa edo entitate zorduna den urte naturalean kontuaren titularrari kontuan idaztohartu edo ordaindutako gutxitako zenbateko gordina, urte naturalean kontuaren titularrari egindako amortizazioen gutxitako zenbatekoa barne.

Informazioa ematea zenbateko bakoitzaren moneta zehaztu behar da.

2. Aurreko idatz zatian xedatzen dena gorabehera, honako salbuespen hauek aplikatuko dira eman beharreko informazioari dagokionez:

a) Kontua lehendik egon bada, ez da adierazi behar ez titularraren IFZ ez jaioteguna, baldin eta datu horiek ez badaude finantza entitatearen erregistroetan eta aplikatu beharreko araudiaren arabera ez badauka datuok bildu beharrik.

Hala ere, finantza entitateak zentzuzko ahaleginak egin beharko ditu datuok (IFZ eta jaioteguna) eskuratzeko lehendik egon den kontuari informazioa eman beharra aplikatu behar zaiola argitzen den urtearen ondoko bi urte naturaletan.

b) Egoitza dagoen herrialdeak edo jurisdikzioak ez badu IFZrik ematen, entitateak ez dauka zehaztu beharrik.

c) Titularra non jaio den adierazi beharra egoteko honako bi inguruabar hauek gertatu behar dira:

1. Finantza entitateak datu hori eskuratu eta jakinarazi beharra edukitzea edo eduki izana 2015eko urtarrilaren 5ean indarrean egon den Europar Batasunaren tresna juridikoren bat dela eta.

2. Datua eskuragarri egotea entitateak bilaketa elektronikoaren bidez kudeatzen dituen datuen artean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua, Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentaruak aldatzen duena fiskalitatearen inguruko informazioa modu automatikoan nahitaez trukatu behar izateari dagokionez: transposizioa

Foru dekretu honen bidez barruko ordenamenduan sartzen dira zerga administrazioari finantza kontuei buruzko informazioa emateko aplikatuko diren arauak eta finantza entitateek informazio hori lortzeko egin beharreko eginbideen prozedurak, zuzentarau honetan ezartzen direnak: Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua, Kontseiluaren 2014ko abenduaren 9ko 2014/107/EB Zuzentaruak aldatzen duena fiskalitatearen inguruko informazioa modu automatikoan nahitaez trukatu behar izateari dagokionez.

Bigarrena. Interpretazioa ELGEren iruzkinen arabera

Foru dekretu honetan arautzen da nola bete behar dituzten finantza entitateek finantza kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza non dagoen zehaztu beharra eta kontu horiei buruzko informazioa eman beharra. Arau hauek ELGEk agintaritzza eskudunen arteko akordioaren ereduaz eta informazio trukerako estandar komunaz argitaratuko iruzkinen arabera interpretatu behar dira.

Hirugarrena. Identifikazio fiskaleko zenbakia eskuratu beharra, Ameriketako Estatu Batuek eta Espainiak nazioarteko zerga betekuntza hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act - FATCA ezartzeko sinatutako akordioari dagokionez.

Ameriketako Estatu Batuek eta Espainiak nazioarteko zerga betekuntza hobetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act - FATCA ezartzeko sinatutako akordioan ezartzen denaren arabera lehendik dauden kontu batzuei buruzko informazioa eman beharra dago. Hori dela eta, 2017. urtean finantza entitateek finantza konturen baten titulartasuna edo kontrola duten estatubatuarren IFZ eskuratu beharko dute, lehendik eskuratuta ez badute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako hauek indargabetzen dira (indargabetzeak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak): 18/2006 Foru Dekretua, apirilaren 4koa, egoitza Europar Batasuneko beste estatu batzuetan duten pertsona fisikoen errentei buruz informatu beharra ezartzen duena; abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena: 10., 11., 12., 13. eta 14. artikulak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Gasteiz, 2017ko otsailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ